



REGLAMENTO FÚTBOL 8

- TORNEO INTERESCOLAR MIXTO Y FEMENINO -

NORMATIVA GENERAL DEL TORNEO

1. **CATEGORÍA:** El Torneo de Fútbol 8 se desarrollará en dos categorías:
 - ⚽ **MIXTA:** JUGADORES/AS NACIDOS/AS EN LOS AÑOS 2008 y 2009.
 - ⚽ **FEMENINA:** JUGADORAS NACIDAS EN LOS AÑOS 2008, 2009 y 2010.
2. **EQUIPOS:** Los equipos deberán estar formados por un mínimo de doce jugadores/as y un máximo de catorce, pudiendo inscribir dos porteros/as por equipo, de los cuales, uno/a de ellos/as (llevará el número 13) podrá jugar de jugador/a y de portero/a.
3. **FASE PREVIA:** En dicha fase, si la hubiera, se jugaría en el mes de noviembre y la reglamentación sería la misma que la de la fase final con la única modificación que la duración de los partidos sería de 30 minutos, divididos en tres tiempos de 10 minutos cada uno.
4. **COMPETICIÓN:** Cada partido tendrá una duración de 36 minutos divididos en tres tiempos de 12 minutos cada uno, intercalando un descanso de 3 minutos. **Deberán jugar en los dos primeros tiempos todos los jugadores/as inscritos en el acta arbitral de cada partido, jugando los mismos/as que inician cada uno de los dos primeros tiempos hasta el fin de los mismos, pudiendo cambiarlos solo en caso de lesión.** En el tercer tiempo, se podrán realizar todos los cambios que se crea oportuno durante el transcurso del mismo, sin ser necesario advertir al colegiado para realizarlos, debiendo hacerlos por el centro del campo, saliendo primero el jugador que está en el terreno de juego e incorporándose posteriormente su sustituto. Por cada partido ganado se puntuará con 3 puntos, el partido empatado 1 punto y el partido perdido con 0 puntos.



5. **NORMATIVA:** Para el resto de reglas de juego del Torneo, se aplicará la normativa vigente (2019/2020) en el reglamento de F-8 de la Federación Navarra de Fútbol.
6. **CATEGORÍA MIXTA:** Tras la fase previa (en el caso de que hubiera) y la fase final de grupos (64 equipos), en la siguiente fase (dieciseisavos de final) **se clasificarán los dos primeros de cada grupo**. En caso de empate a puntos en un mismo grupo, se clasificará el equipo más joven de edad (por año de nacimiento y si siguiesen coincidiendo, se calcularía la media del grupo anual-mensual). Si persistiera el empate, se clasificaría el equipo menos sancionado con tarjetas y si aun así siguiese persistiendo, se resolvería mediante un sorteo.
7. **CATEGORÍA FEMENINA:** Tras la fase previa (en el caso de que hubiera) y la fase final de grupos (24 equipos), en la siguiente fase (octavos de final) **se clasificarán los primeros de cada grupo y los dos mejores segundos**. En caso de empate a puntos en un mismo grupo, se clasificará el equipo más joven de edad (por año de nacimiento y si siguiesen coincidiendo, se calcularía la media del grupo anual-mensual). Si persistiera el empate, se clasificaría el equipo menos sancionado con tarjetas y si aun así siguiese persistiendo, se resolvería mediante un sorteo.
Igualmente será para la selección de los dos mejores segundos.
8. En ambas categorías, si el número de equipos inscritos no llegará a la cifra estipulada para la fase final, se configurará el calendario, grupos y competición en función del nº de equipos inscritos. Todo ello se informará a su debido tiempo.
9. Todas las siguientes fases serán por eliminatoria a un partido. En caso de terminar en empate los partidos, se efectuarán tandas de penaltis; la primera de 3 por equipo y si se mantiene el empate, de 1 en 1 hasta que haya un ganador.
10. Sólo tendrán acceso al banquillo el **ENTRENADOR/A, DELEGADO/A y SUPLENTE** de cada equipo y permanecerán en el mismo, durante todo el partido sin traspasar la línea lateral del campo.
11. **Antes del comienzo de cada partido (20 minutos), todo equipo entregará a la Organización, la relación de jugadores/as**



numerados del 1 al 14, con nombre, 2 apellidos y fecha de nacimiento que van a participar en el mismo. Es obligatorio que cada jugador/a lleve el mismo número de camiseta durante todo el Torneo y este dorsal coincida con el número indicado en la relación entregada a la Organización en la inscripción que hizo el Centro Escolar en el plazo estipulado.

12. Será **OBLIGATORIO** jugar con las camisetas proporcionadas por la Organización del Torneo.
13. En caso de que se detectase alguna irregularidad (edades, alineaciones indebidas, etc.) tras su comprobación, el Comité de Organización tendrá potestad para tomar la decisión oportuna con el equipo infractor. Si se expulsara del Torneo al equipo, se eliminarán todos los registros que hubiera tenido dicho equipo con el resto de participantes de su mismo grupo.
14. Cada partido tendrá un árbitro asignado que controlará todas las incidencias y situaciones que puedan ocurrir derivadas del juego. En el supuesto caso que sucediese cualquier situación anómala, el árbitro del encuentro informará al comité de organización para que actúe en consonancia.



COMITÉ DE ORGANIZACIÓN Y SANCIONES

Entre las funciones del Comité de Organización están: estudiar las actas arbitrales cada día, decidir las posibles sanciones derivadas de las infracciones deportivas, etc... y cualquier otra función derivada del transcurso del Torneo. Las sanciones disciplinarias más significativas serán:

- Las sanciones por dos tarjetas amarillas a un jugador/a en un partido, supondrán la expulsión del mismo y acarrearán la suspensión de un partido, que se cumplirá obligatoriamente en el siguiente.
- Las expulsiones por tarjeta roja directa por infracción de reglas deportivas, a un jugador/a en un partido, supondrán la expulsión del mismo y acarrearán un partido de suspensión que se cumplirá obligatoriamente en el siguiente.
- **No existen las expulsiones temporales**, con lo cual cuando un jugador/a sea expulsado, no podrá ser sustituido por otro u otra, quedando el equipo infractor en inferioridad numérica lo que reste de encuentro.
- Las expulsiones por infracciones disciplinarias, supondrán la exclusión definitiva del jugador/a del Torneo.



PAUTAS PARA UN MEJOR FUNCIONAMIENTO DEL TORNEO

Debido a que la programación de los partidos es muy ajustada, es conveniente para todos, seguir unas pautas con el fin de que el torneo se desarrolle de la mejor forma posible.

Para ello es conveniente tener en cuenta las siguientes indicaciones:

1. Los equipos deberán presentarse con un mínimo de 45 minutos antes del partido.
2. Se indicará diariamente, previa a los partidos, a los responsables-coordinadores de los Centros Escolares, el vestuario y campo que les corresponda.
3. Los vestuarios podrán compartirse con otro equipo, si fuera necesario, por ello, será imprescindible la presencia del entrenador/a o delegado/a dentro de los mismos mientras estén sus jugadores/as.
4. Se habilitarán zonas de calentamiento en los campos de juego (Fondos de los campos de fútbol 11).
5. Los partidos se reanudarán sin necesidad de volver a entrar en el vestuario tras el calentamiento.
6. Los equipos dispondrán de dos balones para los calentamientos, de los que se harán cargo los recoge-pelotas designados por el Comité de Organización, una vez terminados los mismos.
7. Al terminar los partidos es obligatorio que los/as entrenadores/as o delegados/as de los equipos revisen los vestuarios.



8KO FUTBOL-ARAUDIA

- ESKOLARTEKO TXAPELKETA MISTOA ETA EMAKUMEZKOENA -

TXAPELKETAKO ARAU OROKORRAK

1. **KATEGORIA:** Bi kategoria egongo dira 8ko Futbol Txapelketan:
 - ⚽ **MISTOA:** 2008AN eta 2009AN eta JAIOTAKO JOKALARIAK.
 - ⚽ **EMAKUMEZKOENA:** 2008AN, 2009AN ETA 2010EAN JAIOTAKO JOKALARIAK.
2. **TALDEAK:** Gutxienez hamabi eta gehienez hamalau jokalarik osatuko dituzte taldeak. Bi atezainek eman ahal izango dute izena talde bakoitzean, eta bietako bat atezain zein zelaiko jokalaria aritu ahal izango da (13 zenbakiarekin jokatuko du).
3. **AURREKO FASEA:** Egongo balitz, azaroan jokatuko litzateke, eta azken faseko araudi bera izango luke. Aldaketa bakarra egongo litzateke: partidek 30 minutu iraungo lukete (10 minutuko hiru zati).
4. **PARTIDAK:** Norgehiagoka orok 36 minutu iraungo du, eta 12 minutuko hiru zatitan jokatuko da (tartean, 3 minutuko atsedenaldiak egongo dira). **Partida bakoitzeko arbitroaren aktan izena emandako jokalaria guztiak lehenengo bi zatietan aritu beharko dira, eta zati bat hasten duten jokalariek zati osoa jokatu beharko dute (aldaketak lesioak tarteko bakarrik egin ahal izango dira).** Hirugarren zatian, aldiz, nahi adina aldaketa egin ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango epaileari aldaketen berri ematea. Hala, jokatzen ari den jokalaria zelai erditik irtengo da, eta, ondoren, hortik bertatik zelairatuko da bere ordezkoa. 3 puntu eskuratuko dira irabazitako partida bakoitzeko, puntu 1 berdinketa bakoitzeko, eta 0 puntu galdutako norgehiagoka bakoitzeko.



5. **ARAUDIA:** Txapelketako gainerako joko-arauei dagokienez, Nafarroako Futbol Federazioko 8ko futbol-araudian indarrean dauden arauak (2019/2020) aplikatuko dira.
6. **KATEGORIA MISTOA:** Aurreko fasea (baldin balego) eta multzoen azken fasea (64 talde) jokaturakoan, hurrengoan (final-hamaseirenak) **multzo bakoitzeko lehenengo taldeak gehi bi bigarren onenak sailkatuko dira.** Multzo batean puntu-berdinketa egongo balitz, talderik gazteena sailkatuko litzateke (jaiotza-urtea hartuko da aintzat, eta, hala ere, berdinketak bere horretan jarraituko balu, multzoaren urteko-hileko batez bestekoa kalkulatu litzateke). Horrela ere berdinketa balego, txartel gutxien jasotako taldeak egingo luke aurrera eta halere berdin jarraituko balu, zozketa bidez ebatziko litzateke.
7. **EMAKUMEZKOEN KATEGORIA:** Aurreko fasea (baldin balego) eta multzoen azken fasea (24 talde) jokaturakoan, hurrengoan (final-zortzirenak) **talde bakoitzeko onenak eta bigarren postuan geraturiko hiru onenak sailkatuko dira.** Multzo batean puntu-berdinketa egongo balitz, talderik gazteena sailkatuko litzateke (jaiotza-urtea hartuko da aintzat, eta, hala ere, berdinketak bere horretan jarraituko balu, multzoaren urteko-hileko batez bestekoa kalkulatu litzateke). Horrela ere berdinketa balego, txartel gutxien jasotako taldeak egingo luke aurrera eta halere berdin jarraituko balu, zozketa bidez ebatziko litzateke. Bi bigarren onenen kasuan ere irizpide horiek hartuko dira oinarri.
8. Bi kategorietan, izena ematen duten taldeen kopurua azken faserako zehaztutakoa baino gutxiagokoa bada, izena emandako talde-kopuruaren arabera antolatuko dira egutegia, multzoak eta txapelketa. Horren guztiaren berri dagokionean emango da.
9. Gainerako fase guztiak partida bakarreko kanporaketak izango dira. Berdinduta amaituz gero, penalti-jaurtiketak egongo dira: talde bakoitzeko 3 jokalarik jaurtiko dituzte. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, talde bakoitzeko jokalaria batek jaurtiko du penaltia, irabazle bat egon arte.



10. Talde bakoitzeko **ENTRENATZAILEA, ORDEZKARIA eta ORDEZKO JOKALARIAK** bakarrik egon ahal izango dira aulkian, non partida osoan egon beharko duten, eta ezin izango dute zelaiko alboko marra igaro.
11. **Partida bakoitza hasi aurretik (20 minutu), taldeek jokatuko duten jokalarien zerrenda (1etik 14ra antolatuta) eman beharko diote Antolakuntzari (jokalarien izena, bi abizen eta jaiotza-data jasota). Jokalari bakoitzak kamiseta-zenbaki bera izan beharko du Txapelketa osoan, eta zenbakiak bat egin beharko du Ikastetxeak epe barruan egindako izen-ematean Antolakuntzari adierazitakoarekin.**
12. **NAHITAEZKOA** izango da Txapelketaren Antolakuntzak emandako kamisetekin jokatzea.
13. Irregularitasunen bat sumatuko balitz (adinak, partidetakoko jokalaria-zerrenda okerrak, etab.), hura egiaztatutakoan, Antolaketa-batzordeak eskubidea izango luke dagokion erabakia hartzeko. Talde arau-hauslea Txapelketatik kanporatua izango balitz, bere multzoko gainerako taldeen aurka bildutako erregistro guztiak deuseztatu egingo lirateke.
14. Partida bakoitzari arbitro bat esleituko zaio, bai eta mahaiko epaile bat ere, zeinak jokoak eragindako gorabehera eta gertaera guztiak zainduko dituen. Ezohiko zerbait jazoko balitz, partidako epaileari jakinaraziko lioke, hark egoki deritzon erabakia har dezan.



ANTOLAKETA-BATZORDEA ETA ZIGORRAK

Besteak beste, Antolaketa-batzordeak eginkizun hauek ditu: arbitroen aktak egunero aztertzea, kirol-arloko arau-hausteei jar dakizkiekeen zigorrak erabakitzea, eta Txapelketaren garapenetik eratorritako beste edozein betekizun. Diziplina-zehapen garrantzitsuenak hauexek izango dira:

- Jokalari batek partida batean bi txartel hori ikusten baditu, partidatik kanporatua izango da. Horrez gain, ezin izango du hurrengo partida jokatu.
- Jokalari batek kirol-arauak hausteagatik zuzeneko txartel gorria ikusten badu, partidatik kanporatua izango da. Horrez gain, ezin izango du hurrengo partida jokatu.
- **Jokalariak ez dira aldi baterako kanporatuko.** Hortaz, epaileak jokalaria bat kanporatzean, taldeak ezin izango du beste jokalaria batekin ordeztu, eta jokalaria gutxiagorekin jokatu beharko du partida bukatu arte.
- Diziplinazko arau-hausteen ondoriozko kanporaketek jokalaria Txapelketatik behin betiko kanporatzea eragingo dute.



TXAPELKETA AHALIK ETA HOBEREN GARATZEKO JARRAIBIDEAK

Partiden programazioa oso zorrotza denez, komeni da guztiok jarraibide jakin batzuen arabera jokatzeko, txapelketa ahalik eta hoberen gara dadin:

- Taldeak partida hasi baino 45 minutu lehenago, gutxienez, agertu beharko dira.
- Egunero, partidak jokatu aurretik, Ikastetxeen arduradun-koordinatzaileei dagozkien aldagelaren eta zelaiaren berri emango zaie.
- Aldagelak beste talde batekin parteka litezke, beharrezkoa balitz. Horrexegatik, entrenatzaileak edo ordezkariak nahitaez egon beharko du bertan bere taldeko jokalariak dauden bitartean.
- Zelaietan, beroketak egiteko eremuak izango dira (futbol 11 zelaietako atzealdeak).
- Partidak jarraituko dira beroketa egin ostean aldageletara itzuli behar izan gabe.
- Taldeek baloi bana izango dute beroketak egiteko; bukatutakoan, Antolaketa-batzordeak izendaturiko pilota-jasotzaileak arduratuko dira baloiez.
- Partidak bukatutakoan, taldeetako entrenatzaile edo ordezkariak ezinbestean ikuskatu beharko dituzte aldagelak.